



HAZIARABA

KUTXAK ASKATU

2 URTEKO HAURREN FAMILIENTZAT

Aurten ere Paraíso Antzerkiak esperientzia iradokitzaile batean parte hartzera gonbidatu nahi ditu Ikastolako familiak: Kutxak askatu tailerra, Laudio Udalak babestutakoa.

Tailer honek proposamen anitzak, iraunkorrak eta emozioz beteak biltzen dituen kultur eskenatokia eskaintzen du. Sei urtetik beherako haurren eta haien senideen estimulazio artistikorako proposamen egokia da. Bestalde, kultura garaikidearen abentura berritzailea, arteen aniztasuna eta gozamen kulturala bizitzeko aproposa ere bada.

Familiantzako abentura bat proposatzen dizuegu, non nagusiek eta txikiak kartoizko kutxetan murgiltzeko aukera izan dezakete. Kutxak jolas unibertsaleko elementu bat dira, baita material eszeniko bat ere, haur eta helduei eueren irudimena elkarrekin garatzeko eta sormena indartzeko aukera ematen diena. Kutxak esploratzeaz, esperimintatzeaz eta eraldatzeaz gain, banakako eta taldeko dramatizazio-egoera ugari bultzatuko dira. Horrelako materialak erabiltzeak berrerabiltzeko eta elkarlanean aritzeko kemena bultzatzen du, eta birziklapena sustatzen du.

Tailerra aukera bat da gure seme-alaben hazkuntzan jolasaren balioa bizitzeko eta lotura emozionalak eraikitzeko.



Aurreko edizio bietan ez da kopuru mugarik egon, baina oraingoan soilik 18-20 familiak (ume bat heldu batekin) izango dute parte hartzeko aukera.

Laudio Ikastolako 2 urteko haurren familia horiek azaroaren 15ean Lamuza Parkeko Kasinoan eskainiko duten emanaldian parte hartzeko aukera izango duzue, arratsaldeko 16:30ean.

Plaza mugatuak direnez, interesa eta aukera duzuen familiek ondorengo galdetegia bete dezazuen eskatzen dizuegu, azaroaren 9a baino lehen. Interesatutakoak plazak baino gehiago balira, zozketa egingo dugu.

izena eman

